



**ERABAKIA, BERA BERA RUGBY TALDEAK EUSKADIKO ERRUGBI  
FEDERAZIOAREN KIROL DIZIPLINAKO BATZORDEAREN 2015eko  
OTSAILAREN 11ko ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO  
ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

---

**Esp.-zk.: 9/2015**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** 2015eko otsailaren 24an, Bera Bera RT taldeak Euskadiko Errugbi Federazioaren 2015eko otsailaren 11ko Erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa erregistratu zen; Erabaki horren bitartez, 2. mailako Euskal Senior Ligako 1. fasearen barruan Kanpanzar/Arrasate RT taldearen eta Bera Bera RT taldearen artean jokaturako partidaren garaile Kanpanzar Arrasate RT taldea izendatu zen, 7-0 emaitzarekin, eta bost (5) puntu eman zitzaizkion txapelketaren sailkapenean. Beraz, partida horretan galtzaile Bera Bera RT taldea izan zen, 0-7 emaitzarekin, eta lau (4) puntu kendu zitzaizkion txapelketaren sailkapenean (Partida eta Lehiaketan Arautegiaren 26. eta 35.1.A artikulua), eta horretaz gain, Bera Bera RT taldeari 200 €-ko isuna jarri zitzaion jakinarazi gabeko ez-agertzeagatik (PLAren 81. artikulua c) paragrafoa).

**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen eta Euskadiko Errugbi Federazioari espedientea eskatu zion; era berean, Federazio horri eta Kanpanzar/Arrasate RT taldeari entzunaldi-izapidea ere eman zien.

**HIRUGARRENA.-** 2015eko martxoaren 26an, Euskadiko Errugbi Federazioak eskaturako espedientea helarazi zuen, Kirol Diziplinako Batzordeak egindako alegazio-idazkiarekin batera.



## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENENGOA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, halaxe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

**BIGARRENA.-** Bera Bera RT taldeak egindako alegazioak aztertzeko, aurkaratutako ebazpena zer gertakarik eragin duten azalduko dugu:

- 1) 2015eko otsailaren 6an, Bera Bera RT taldeak mezu elektronikoko bana bidali zuen Euskadiko Errugbi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordera eta Lehiaketako Batzordera; mezu horren bitartez, organo horiei jakinarazi zien 2. mailako euskal senior ligaren barruan jokatu zen Kanpanzar/Arrasate RT-Bera Bera RT partidara ez zela agertuko, eguraldi txarragatik eta errepide-sarearen egoeragatik, izotza eta elurra egiteko arriskua baitzegoen. Era berean, Kanpanzar-Arrasate RT taldeko ordezkariarekin harremanetan jarri zela ere jakinarazi zuen, baina ordezkari horrek ez zuela partida atzeratu nahi.
- 2) 2015eko otsailaren 6an, Kirol Diziplinako Batzordeak partida hori bertan behera geratu zela jakinarazi zien bi taldeei eta epaileari, Bera Bera RT taldeak jakinarazitako ez-agertzeagatik.
- 3) 2015eko otsailaren 11n, Kirol Diziplinako Batzordeak zera erabaki zuen: 2. mailako Euskal Senior Ligako 1. fasearen barruan Kanpanzar/Arrasate RT taldearen eta Bera Bera RT taldearen artean jokatu beharreko partidaren garaile Kanpanzar/Arrasate RT taldea izendatzea, 7-0 emaitzarekin, eta bost (5) puntu ematea txapelketaren sailkapenean; halaber, partida horretan galtzaile Bera Bera RT taldea izendatzea erabaki zuen, 0-7



emaitzarekin, eta lau (4) puntu kentzea txapelketaren sailkapenean (Partida eta Lehiaketen Arautegiaren 26. eta 35.1.A artikulua), eta horretaz gain, Bera Bera taldeari 200 €-ko isuna jarri zitzaion jakinarazi gabeko ez-agertzeagatik (PLAren 81. artikulua c) paragrafoa).

**HIRUGARRENA.-** Bera Bera RT taldeak Kirol Justiziako Euskal Batzorde honetan jarritako errekurtsorekin batera, Estatuko Meteorologia Agentziaren ziurtagiria ere aurkeztu zuen; errekurtsore horretan dioenez, otsailaren 6an, ostiralarekin, Estatuko Meteorologia Agentziak alerta horia ezarri zuen Gipuzkoarako egun horretako 11:11tik otsailaren 8ko 00:00era bitarte, eta taldeak egoera horren berri izan zuelarik, Kanpanzar-Arrasate taldearekin harremanetan jarri zirela partida atzeratzeko eskatzearen, segurtasun-arrazoiak zirela-eta. Izan ere, errepide-sarea egoera txarrean egon zitekeen eguraldiagatik, baina Arrasate taldeak ez zuenez eskaera onartu, Euskadiko Errugbi Federazioarekin harremanetan jarri ziren partida atzeratzeko arrazoi berak argudiatuz. Errekurtsore aurkeztu duen taldearen ustez, segurtasuna da garrantzitsuena, eta are gehiago lehiaketa ludiko batean. Bera Bera taldearen arabera, egin behar zutena egin zuten erakunde ofizialen gomendioei jarraiki, eta ez dute uste horregatik zigorrik jarri behar zaienik, Foru Aldundiak asteburu horretako eskola-kiroleko saioak ere bertan behera utzi zituela aintzat hartuta.

**LAUGARRENA.-** Bera Bera RT taldearen errekurtsore ez dute argudiatu aurkaratutako Erabakiak ezein agindu urratzen duenik; partida atzeratzea zergatik eskatu zuten baino ez dute aipatzen, eta Kirol Diziplinako Batzordeak zirkunstantzia horiek aintzat hartu behar zituela iritzi diote.

Espedientearekin batera igorritako alegazio-idazkian, Kirol Diziplinako Batzordeak dio eguraldiagatik partidak bertan behera uzteko finkatutako protokoloaren arabera, Eusko Jaurlaritzak aire zabalean antolatzen diren jardueretarako hartzen dituen erabakiei jarraitu behar zaiela.



2015eko otsailaren 7rako, Eusko Jaurlaritzak ez zuen kirol-ekitaldiak bertan behera uzteko neurririk hartu, eta horregatik, aurreikusita zeuden kirol-lehiaketak jokatu egin ziren. Are gehiago, 2015eko otsailaren 7an Ohorezko B mailako A taldeko partida bat jokatu zen Bera Bera RT taldearen eta Belenos R.C. (Asturias) taldearen artean, Donostiako Kote Olaizola miniestadioan.

Hori horrela izanik, Kirol Diziplinako Batzordeak Partida eta Lehiaketen Arautegia aplikatu du eta jakinarazi gabeko ez-agertzeen kasuetarako aurreikusitako zigorrak jarri ditu, horixe gertatu baitzen kasu honetan; izan ere, ez-agertzea jakinarazi zuten, baina 72 orduko gutxieneko epea ez zenez bete, jakinarazi gabekotzat hartu behar da.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

### **ERABAKI DU:**

Bera Bera Errugbi Taldeak Euskadiko Errugbi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2015eko otsailaren 11ko Erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa ezestea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.



Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 11

José Ramón Mejías Vicandi  
KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA